

noaua

**Gaztainerretzaileek
jaurtiko dute txupinazoa**

**Udarregi Ikastolaren 50.
urtemugako ospakizunak
abiatzera doaz**



Joan Mari Torrealdai

**“Hizkuntzaren ikuspuntutik,
nazionalismo espainola supremazista da”**

AFARI MARIDAJEA

- Eguna: Ekainak 8, ostirala
- Ordua: 20:30
- Lekua: ANDATZ-PE Elkarte
- Prezioa: 30€



Zer da? Otordu bat da, baina berezitasun batekin. Produktuen ezkontza komentatua da: jaki bat edari batekin. Gure kasuan, jakia sagardoarekin. **Gidaria:** Mikel Garaizabal. Produktua ezagutzen duen figura da, berak banan-banan azalduko ditu jakiak eta horiekin zerbitzatuko diren edariak. **Afari maridatua, sagardoarekin:** Gure funtsa **SAGARDOA** da, bere deribatu guztiekin. Afari honetan plater bakoitza Sagardo mota desberdinekin lotuko dugu. Usurbilen kasuan, Usurbil eta Zubietako sagardotegietako sagardoa izango dugu gozagarri plater bakoitzarekin.

40 lagunentzat izango da lekua eta zerrendak BORDATXO TABERNAN, ALKARTASUNA KOOPERATIBAN eta ANDATZ-PE elkarteetan izango dira. Egunean bertan ordaindu beharko da. Edozein zalantza argitzeko edota harremanetarako: info@sagardoa.eus edo 943 33 68 11 Gipuzkoako Sagardogileen Elkarte.

Antolatzaileak: Alkartasuna Kooperatiba, Sagardoaren Unibertsitatea, Usurbilgo Udala, Gipuzkoako Sagardogileen Elkarte



HAUNDITZEN ORAIN USURBILEN

Astearte eta ostegunetan
19:00 - 20:00
Etorri proba egitera 2 egunetan doan

informazio gehiago
www.kalefit.com

688.610.932



943 373 613

IRTEERA IRAILEAN
Noaok gidatutako talde bidaiak.
Lasartetik irtenda.

Albiste iruditan

Sexu Aholkularitza Gunearen ibilbidea, iruditan

Usurbilgo Sexu Aholkularitza Gunea martxan jarri zutenetik hona egindako ibilbidea, eta udal zerbitzua bera hobekiago ezagutzeko aukera duzue egunotan, maiatzaren 31ra arte, Sutegin.

Erakusketa aretoko leihoan, kanpo aldera jarri dituzten panelen bidez, desira tailerrak, argazki erakusketa, hitzaldiak, tailerrak... egindakoa gogora ekarri nahi izan dute. Ekimenaren izenburuak dioen moduan, "6 urtez hamaika eratan sexuen heziketa" sustatzen aritu da, Elena Jimenez ardurapeko zerbitzua. Erakusketa honen baitan, "identitatearen ibilbidea. Neska-mutil anitzak, sexualitatea, transexualitatea" izeneko hitzaldi-solasaldia egitekoak ziren asteazken honetan Bihurri ludotekan.



Maiatzaren 31ra arte, Sutegin dago erakusketa ikusgai.

Laburrean

2017ko Kontu Orokorra jendaurrean

Usurbilgo Udalak maiatzaren 25eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zuen iragarkiaren arabera, 2017ko Kontu Orokorra jendaurrean izango da ikusgai, "hamabost egunez, kontu-hartzailetzako bulegoetan". Tarte horretan, alegazioak aurkezteko aukera izango dute interesdunek udal erregistroan.

Diru laguntzen alegazio epea, ixtear

Usurbilgo Udalak behin behinean onarturiko diru-laguntzei alegazioak aurkezteko epea ostegun honetan (maiatzak 31) itxiko da.

Guztira, 180.000 euro banatu asmo dute, kultura, kirola, ingurumena, nekazaritza eta gizartegintzako egitasmoetara.

Lokal komertzial hutsak biziberritzeko deialdia

Usurbilen hutsik dauden merkataritza lokalak biziberritzea sustatu nahi du Udalak. Horretarako, lokal hauek erabiltzeko hautua egiten duten ekintzaileek, alokairu gastuei aurre egiteko diru-laguntza deialdia egin du Udalak. Informazio gehiago usurbil.eus web orrian edo 943 371 951 telefono zenbakian.

noaqua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 ||| elkarte@noaqua.eus ||| www.noaqua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatorak:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaqua.eus

Diseinu berria: Erroit S. L

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaqua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Iñaki Irazusta, Jon

Galbete.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Etxabé, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak



Euskal Herreria!



Aritz Gorriti

Beste bat geratu dute

Urte hasieran Vaux-le-Pénilgo (Paris, Frantzia) erraustegiaren arduradunak zigortu zituen Parisko auzitegi batek, hainbat herritar arriskuan jarri eta desegokitzat jotzen instalakuntza eraikitzea baimentzeagatik. 15 urte luzez borrokatu ostean etorri zen epaia, 165 herritarrek aurkezturiko salaketaren harira izandako epaiketaren amaieran.

Legez baimendutakoa baino 2.200 aldiz dioxina gehiago isurtzen zituen erraustegi hark. 2002an itxiarazi zuten agintariak erraustegi hura. Aipatu moduan, 15 urteko borroka luzeari ekin zioten

gero herritarrek jasandako kalteengatik. Bidean hil ziren dozena bat lagun minbiziak jota, gaixorik jarraitzen dute, bizitzen segi ahal izateko borrokan beste hainbat. Historikotzat jo daitekeen epai honek erraustegi haren arduradunei, hiri elkargoari isuna jartzeaz gain, herritarroi kalte ordainak ematera behartu zituzten.

Egunotan Italiatik heldu da azken albistea. Florentziako tokiko agintariak eraiki nahi zuten erraustegiaren aurka agertu da Italiako Estatu Kontseilua. Ez du baimendu planta hau eraikitzea, eta honenbestez, 15 urtez proiektu haren aurka eta alternatibak martxan jartzearen alde borrokatu diren herri-

tarrei arrazoa eman die.

Bi herrialde ezberdinetan, auzitegiak, herritarren osasuna babesten, haien osasuna arriskuan jar dezaketzen proiektuen aurka agertzen. Erraustegiari ezetz esaten, halako plantak eraikitzea ukatzen. Parisko kasua bereziki benetan latza, erraustegiaren kalteak agerian jarri dituztelako halako planta toxiko bat oso hurbiletik sufritu dutenek. Baina era berean itxaropentsua, Italiatik heldutako albistearen antzera.

Gipuzkoatik begira, inbidia. Hona etorrita, pentsaezina zailgulako oraindik epaile batek irmoki, hamarkada batetik gora milaka herritarrek alternatiben alde eginiko borrokari, osasuna

lehenesteko exijentziari bidea ematea. Gaurkoz, sarritan ikusten ari garenez, “bestelako” (denetariko adjektibo kalifikatzaileentzako lekua dago bertan) lurralde batean bizi gara. Hemen, iraungitako eta GuraSOSek martxoan medikuekin antolatutako solasaldian, CSIC-eko bi zientzialariek landu eta plazaraturiko txostenak ohararazten zuen moduan, herritarren osasuna bermatzen ez duen baimena eman diote agintariak erraustegiari. Ehunka alegazio aurkeztu zituzten iaz herritar eta Udalek baimen honen aurka. Gaurkoz ordea, atzera kontakteta betean segitzen dugu. Garaiz geratuko ote da?

Maialen Unanue | Garazi Lizaso Manterola | **Aritz Gorriti** | Luis Aranalde | Imanol Ubeda | Idoia Torregerai | Luken Arkarazo

Anerreka Ingurumen Elkartearen bilera irekia

Herritar talde batek urrian sortu zuen Anerreka Ingurumen Elkarte, “herriko lurra, aire eta uraren kalitatearen alde lan egiteko, eta ondorioz, guztion osasunaren alde”. Helburuok lortzeko ordutik eman dituzten pausoen berri eman nahi dute, eta horretarako, bilera irekia deitu dute ekainaren 1erako.

“Informazioa jaso nahi baduzue edota ekarpenak egin nahi badituzue, bilera irekira gonbidatzen zaituztegu”, deitu dituzte herritarrek. Segidan dituzte hitzordu honen gaineko xehetasunak:

- Eguna: ekainak 1, ostirala.
- Ordua: 19:00.
- Tokia: Potxoenea.
- Gai zerrenda:

1-Udalaren aurrean emandako pausoak: uraren kalitatea (Harane erreka) eta aire eta lurra- ren kalitatea (Luzuriaga eta UCIN).

2-Eusko Jaurlaritzan emandako pausoak: aire eta lurra- ren kalitea (Luzuriaga eta UCIN).

3-Hurrengo pausoak.

- Deitzailea: Anerreka Inguru- men Elkarte.



Urrian osatu zen Anerreka Ingurumen Elkarte. Ekainaren 1ean bilera irekia egingo dute Potxoenean.

Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.

Gaztainerretzaileek jaurtiko dute txupinazoa eta Ibai Arrietaren egitarauak iragarriko dizkigu jaiak

Jai Batzordeak festei begirako bi erabaki garrantzitsu hartu ditu. Maiatzaren 18ra arte martxan ziren egitarau diseinu lehiaketako irabazlea eta txupinazoa nork jaurtiko duen hautatu dituzte jada. Besteak beste, bi buruhandien irudiak biltzen dituen diseinuak irabazi du txapelketa. Egilea, txapelduna honenbestez, Ibai Arrieta del Pico usurbildarra dugu. Zorionak! Ekaina amaiera aldera ezagutuko dugu Arrietaren diseinu lana, Usurbilgo Udalak festetako egitaraua etxe guztietan banatu ostean. 20 diseinu lan aurkeztu dira aurtengo txapelketara.

Bigarren erabaki bat ere hartu du Jai Batzordeak. Aipatu moduan, hautatua dute txupinazoa nork jaurtiko duen. Jai Batzordeak, Potxoenean, Sutegi udal liburutegian, Oiardo Kiroldegian edo Usurbilgo Udalean jarriko kaxetan nahiz email bidez, guztira 65 ekarpen jaso ditu eta festak abiatzeko suziria pizteko 40 hautagaien izenak. Goiko irudian dituzue aurtengo



Guztira 65 ekarpen jaso dira. Gaztainerretzaileak izango dira ekainaren 28ko txupinazoa piztuko dutenak.

GAZTAINERRETZAILEAK

“Urteak daramatzate, herriko hainbat eragilek antolatuturiko azoka edota ekitaldiak girotzen; gaztainak erre eta saltzen”

udaletxeko balkoian jaietako hainbat eragilek antolatuturiko azoka edota ekitaldiak girotzen; gaztainak erre eta saltzen. Eta laguntzen, ekarpen ekonomikoa egiten. Lagun koadrila ezagun honek egiten duten ahalegina txalotu, eskertu eta omentzeko aukera izango du beraz Usurbilgo herriak. Zorionak!

udaletxeko balkoian jaietako hainbat eragilek antolatuturiko azoka edota ekitaldiak girotzen; gaztainak erre eta saltzen. Eta laguntzen, ekarpen ekonomikoa egiten. Lagun koadrila ezagun honek egiten duten ahalegina txalotu, eskertu eta omentzeko aukera izango du beraz Usurbilgo herriak. Zorionak!

Jaietako Bertsopaper Txapelketak abian

Bertso zaleentzako deialdia. Usurbilgo festei begira, Bota Punttubak bertsopaper lehiaketak antolatu ditu. Iaz bezala, bi. Bat tradizio luzeena duena; 16 urtetik gorakoentzat. Bestea, LH5 eta LH6 mailako ikasleei zuzendurikoa. Batera zein bestera lanak aurkezteko epea zabalik egongo da ekainaren 21era arte. Hemen dituzue xehetasunak:

LH 5 eta LH6koentzako Bertsopaper Txapelketa:

■ Nori zuzendua: LH5 eta

LH6ko usurbildarrei edo Usurbilen ikasten duten gaztetxoiei.

■ Lanen ezaugarriak: bi bertsoetako lanak izan behar dute. Gaietako bat aukeratu behar da:

-NOAUA!n herriko zuhaitz zaharrena botako dutela irakurri berri duzu.

-Herriko alkatea bazina zein aldaketa egingo zenituzke?

-Urrutiko lagun bat etorri zaitzu bisitan.

■ Sariak: txapeldunarentzat 50 euro Hurbilagoko dende-

tan xahutzeko eta oroigarria; txapeldun ordearentzat Hurbilagoko dendetan xahutzeko 40 euro eta oroigarria.

16 urtetik gorakoei zuzendutako Bertsopaper Txapelketa:

■ Nori zuzendua: 16 urtetik gorako usurbildarrei.

■ Lanen ezaugarriak: 8-10 bertso artekoak, inoiz argitaratu gabeak.

■ Sariak: 200 euro eta oroigarria txapeldunarentzat, eta 150

euro txapeldunordearentzat.

Lanen aurkezpena

■ Epea: ekainaren 21a baino lehen udaletxean (Usurbilgo Udala, XLII. Bertsopaper Lehiaketa. Joxe Martin Sagardia plaza. Usurbil 20170).

■ Lanak aurkezteko modua: izengoitiz aurkeztu lana. Lanarekin batera, kartazal itxi batean parte hartzailearen datu pertsonalak aurkeztu.

■ Antolatzaileak: Bota Punttuba eta Usurbilgo Udala.

Aire kalitatea neurtzen duen kabina jartzeko eskatu dio EAJk alkateari

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak gutun bat bidali zion alkateari gogoratu zuten kabinak instalatzea Ingurumen Baimen Bateratuan xedatutako nahitaezko baldintza dela. Oraindik jarrita ez dagoela eta alkatearen jarrera oztopatzailea dela dio EAJko udal taldeak.

“Lasarteko kabinaren aurka egindako sabotajeari buruzko informazioa prentsan agertu ondoren jakin dugu Usurbilgoa oraindik ez dagoela ez jarrita eta ez martxan”, Josune Urkola Usurbilgo bozerra maile jeltzalearen hitzak dira. “Orain dakigu maiatzaren 4an Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak gutun bat bidali ziola alkateari, gogoratu, kabinak instalatzea Ingurumen Baimen Bateratuan xedatutako nahitaezko baldintza dela Zubietako tratamendu instalazioen inguruko aire kalitatea neurtzeko, bai indarrean jarri aurretik eta baita funtzionamendu garaian ere”.

Donostia, Andoain eta Lasarte-Oriakoak, martxan

Honen aurrean, aire kalitatea neurtzeko kabina ipini dezala eskatu dio udal gobernuari. Donostia, Andoain eta Lasarteko udalek beren udalerrietan jarri beharreko kabinak jartzea baimendu zutela dio EAJk, “ingurumen organoak emandako ebazpenak beteaz. Egun,



Lasarte-Oriako kabina erasotua izan zen aurreko astean. Usurbilen ere, aire kalitatea neurtzeko kabina ipintzea eskatu dio EAJk Udalarri.

EAJ UDAL TALDEA

“Lasarteko kabinaren aurka egindako sabotajeari buruzko informazioa prentsan agertu ondoren jakin dugu Usurbilgoa oraindik ez dagoela ez jarrita eta ez martxan”

aire kalitateari buruzko datuak ematen ari dira. Usurbilen ordea ez da jarri”, azpimarratu du Josune Urkola zinegotzi jeltzaleak.

Gaia “sekretu handiengan mantendu da”

Kabinaren afera ez da berria. Kontsortzioak alkateari zuzendutako gutuna 2017ko abendua-ren 1ekoa ei da. “Honen guztiaren berri orain jakin dugu

nahiz eta denbora honetan hainbat Hirigintza batzorde eta udal pleno ospatu diren, non ez den inolako informaziorik eman eta gai guztia sekretu handiengan mantendu den. Gainera, ingurumen organoak emandako ebazpenari baldintzak ezartzea jarrera oztopatzailea da. Hori da, edaten dugun uraren kalitatearen azterketak oztopatzea azterketa egiten dutenei beraien protokoloetan agertzen ez diren baldintzak exijituz”, gehitu du Josune Urkola udal zinegotziak.

Horregatik guztiagatik, udalari exigitzen dio “jarrera oztopatzailea alde batera uztea” eta aire kalitatea kontrolatzeko kabina jartzea erraztu dezala, “kabina bakoitzak bere neurketak egin ditzan Eusko Jaurlaritzak ezarritako parametroetan eta baldintzetan”.

Hasiz Hazi beka deialdia

Kabiene Elkartearen elkarlan-gunea urtebetez baliatzeke aukera eskainiko dio ekintzaileari Kabiene berak eta Udalak abiatutako beka deialdi honek. “Elkarlan gune hau, lanerako espazio bat ez ezik, baliabideak eta esperientziak partekatzeke leku bat izango da. Bekadunek bertan lanean ari diren kideen esperientziatik ikasi ahal izango dute eta harreman-sare indartuago batekin ekin ahal izango diote lanari. Beterri-Buruntza Ekinean, enpresak sortzen laguntzeko aholkularitza zerbitzuak baliatu ahal izango dira”. Beka deialdi honen inguruko xehetasunak dituzue segidan:

■ Nori zuzendua: 2018an enpresa proiektu bat duen ekintzaileari.

■ Eskaintzen dena: Kabiene elkartearen elkarlan-gunearen urtebeteko erabilera, diruz ordaindua.

■ Bekaren gehieneko zenbatekoa: 1.089 euro (beti ere ekintzaileak 12 hilabeteko erabilera izaten badu Kabiene).

■ Lehiakideek bete beharreko baldintzak: Beterri-Buruntzako udalerriaren batean erroldatua egotea, adinez nagusia izatea, Usurbilen enpresa bat sortzeko ekimena dutenak izatea,...

■ Dokumentazioa eskuratu eta eskabideen aurkezpena: Usurbilgo udal errejistroan.

■ Epea: irailaren 30era arte.

■ Informazio gehiago:

usurbil.eus

943 371 951

www.noaua.eus

USURBILGO ATARIA

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

“Bildu garen borroka guztiok, kalean jarraituko dugu, ahaldunduago”

Amaitu dute Bizitza Da Handiena borroka sozialen astea. Asteburuan atera ziren, urte luzez hutsik zegoen Donostia erdiguneko eraikin publiko bat astebetean okupatu ostean. Igandean utzi zuten. “Guk emandako hitza betetzen dugu (ez beste batzuek bezala) eta 16 urtez hutsik eduki duten eraikinetik atera gara, astebeteko Bizitza Da Handiena dinamika amaiera emanaz”.

Amaitu dute astebeteko dinamika, baina bidea jorratzen segi asmo dute. “Herritarron aurkako politikari aurre egingo dien Herri Boterea eraikitzen jarraituko dugu”, adierazi dute sare sozialen bidez. Ildo bereetik iragarri dutenez, “bildu garen borroka guztiok, kalean jarraituko dugu, ahaldunduago”.

60 bat herri mugimenduk eta sindikatuk bat egin dute dinamika aste honen baitan.

Hamaika ekimen egin dituzte joan den astean. Tartean, pentsioen murrizketen aurkako mobilizazioetan parte hartu dute. Edota turismo ereduaren aurkako ekimenak egin dituzte. Tartean, baita erraustegiaren aurkako ekimenak ere. Erraustegia geratzea exijitu eta ustelkeria salatzen pankartak zintzilikatu zituzten asteburuan Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza atarian.

Edukiontzien zigilatzea

Erraustegiaren atzean dagoen negozioa agerian utzi eta apirilean epaitu zituzten GHK-ko lehendakari ohi Ainhoa Intxaurrandietari eta foru ingurumen diputatu ohi Iñaki Errazkini elkartasuna adierazteko Gipuzkoa Zutik mugimenduak antolatutako hitzaldi birak geldialditxoak egin zuen baita Idiakez kaleko eraikin okupa-



Egunotan Ertzaintzak identifikatu dituen kideei elkartasuna adierazteko eta turismo ereduaren aurka agertzeko manifestazioa egin zuten ostiralean Donostian. Errausketaren Aurkako Mugimenduak bat egin zuen deialdiarekin.

BIZITZA DA HANDIENA

Amaitu dute astebeteko dinamika, baina “herritarron aurkako politikari aurre egingo dien Herri Boterea eraikitzen jarraituko dugu”

tuan. Eta Errausketaren Aurkako Mugimenduak, hiriburu erdiguneko 100 edukiontzi zigilatu zituen, erraustegia geratu eta “agerian uzteko zein gutxi birziklatzen dugun” erraustegia eraikitzen ari diren hiriburuan. “Donostiarrak %16k bakarrik birziklatzen du dena bereizita. Gutxiegi da”. Donostiako Udalaririk birziklatzea sustatzeko ekimen serioak bideratzea galdegiten diote, “minbizia zabalduko

duen azpiegitura batean milioika euro publiko xahutu beharrean”.

Amaitu berri den astean zehar, 16 lagun identifikatu ditu Ertzaintzak eta bi lagun atxilotu zituen. Atxiloketak, Turismoaren Mundu Erakundearen goi-bileraren aurka maiatzaren 23an Tabakalera atarian eginiko protesta baketsuan izan ziren. Ertzaintzak ekintza grabatzen ari ziren kazetariak eremutik kanporatu eta indarra baliatu zuen bertaratutakoekin. Bi lagun atxilotu zituen. “Honek isunak ekarriko ditu, eta isunen aurrean ere erantzun bateratua emango dugu”, iragarri dute. Gertaerok salatu zituzten maiatzaren 25ean Donostian barrena egin zuten manifestazioan. Salaketa hauekin bat egin zuen, Errausketaren Aurkako Mugimenduak.

Hitzartu diruz laguntzeko kanpaina

Hitzartu prozesuaren baitan, urte amaierara arte aurreikusiak dituzten ekimenak gauzatu ahal izateko herritarron laguntza behar dute. Diru ekarpenak egiteko bi bide dituzte: bono-laguntzak erosiz edota gurasos.org eta hitzartu.eus atarietan ageri diren kontu zenbakietan diru-sarrerak eginez.



Bono-laguntzak erosi edota diru ekarpenak egin daitezke web orrian.

Haur Eskolarekiko asebetetze maila altua da Usurbilen

Haur Eskolaren zerbitzuaren eta 0-3 urte arteko haurren eskolatzeko-ohituren gaineko azterketa egin dute Usurbilgo Udalak eta Udarregi Ikastolak, Gure Market_In enpresaren laguntzaz, 2011-17 urte artean jaiotako haurren gurasoen artean.

Ondorioztatu dutenez, Haur Eskolaren batera eramatekotan, guraso gehienek Usurbilgoa hautatzen dute. Faktoreok tartean direla. “Haur-eskola herrian egotea (gurasoentzat erosotasuna); elikadura (bertako elikagaiak, bertan prestatutakoak izatea); eta, hiru urteetan umeak erreferentziatzeko hezitzaile baten jarraipena eduki ahal izatea. Hain justu, hiru aspektu horiek dira Usurbilgo haur-eskolan gehien baloratu direnak. Bestalde, Usurbilgo haur-eskola aukeratzeko garaian, honako faktore hauek eduki dute balorazio maila txikiena: prezioak, egutegiak, beste gurasoen iritzia eta ordutegiak”, Usurbilgo Udaletik ohartarazi dutenez.

Alde positiboak eta negatiboak
Positiboki baloratzen dituzte Haur Eskolaren zerbitzuak.



Herrian egotea eta elikadura dira baloratzen diren bi ezaugarri.

AZTERKETAREN EMAITZAK

“Haur Eskolaren batera eramatekotan, guraso gehienek Usurbilgoa hautatzen dute”

“Egokitzapen-aldia, hezitzaileekin gertutasuna, herrian egotea, psikomotritzitateko gela, ikastolarekin txikitatik sortzen den harremana”. Alderdi negatibo gisa, “kuota garestia, ikastolatik fisikoki bananduta egotea, opor luzegiak eta eskola publiko batetik ikastola kontzertatu batera pasatu beharra”.

Haur Eskolako haur ia denak Udarregi Ikastolara doaz gero,

“besterik ez dagoelako, herrian dagoelako, ikastolaren ereduaren aldekoak direlako, euren seme-alabek ikasketak Usurbilen egitea nahi dutelako, ikastolaren metodologia eta instalazioengatik”.

Azterketak agerian utzi du baita, ez dagoela adostasunik 2-3 urteko gelaren inguruan. “Batzuk eskatu diote Udarregiri 2 urtetik aurrera hartzeko haurrak eta ez 3 urtetik aurrera, orain egiten duen bezala. Haatik, umeak Haur Eskolara eraman dituzten gurasoek oso positiboki baloratzen dute 0-3 ziklo osoa mantentzea, nagusiki, ikuspegi pedagogikotik”, Udaletik nabarmentzen dute.

Azterketa, zenbakitan

Parte hartzaileak:

■ 91 guraso (2011-17 urte artean jaiotako haurren gurasoen %27ak).

Emaitzak:

- %75 inguruk, haurrak inoiz haur-eskola batera eraman ditu. Haietatik %98ak Usurbilgora.
- %69ak seme-alaba guztiak eraman ditu.
- %10ak seme-alabaren bat.
- %20,24ak ez ditu seme-ala-

bak haur-eskolara eraman; umeak 3 urtera arte eskolatu nahi ez izateagatik, aitona-amonek zaintzen dizkietelako, garestiegia izan edo gurasoren bat etxean dagoelako. Horietatik, %35ak haur eskolara eraman ez, baina bi urteko gela duen ikastetxeren batean umeak matrikulatu ditu (batez ere, Zubietan eta Aginagako eskola txikietan).

■ %92tik gorako asebetetze maila dute elikadura eta hezi-

tzailkekiko.

- %60koa egokitzapen-aldia, egutegia, instakaluntzak eta hezitzaile bakoitzak duen haur kopuru eta ordutegiarekiko.
- Asebetetze maila txikiena prezioak du.
- Haur Eskolako umeen %85,71k Udarregi Ikastolan jarraitu dute gero. Gainerakoek Aginagako eta Zubietako Eskoletan.
- Adostasunik ez, 2-3 urteko gelaren inguruan.

Aurrematrikulazio garaia Lanbide Heziketan

Datozen bi asteotan bideratu ahal dira inskripzioak, bai Zubietan kokatua dagoen Lanbide Eskolan, baita Atalluko Oinarritzko Lanbide Heziketa udal institutuan ere. Azken honetan gainera, estreinakoz, aurrez hitzordua eskatu eta bertara joanda edo ekainaren 1etik aurrera martxan jarriko duten web orriaren bidez bideratu ahal da izen ematea. Segidan dituzue xehetasunak:

Lanbide Heziketa:

- Epea: ekainak 4-15 (biak barne).
- Ikasketa eskaintza: elektrozitate-elektronika, fabrikazio mekanikoa, administrazioa, energia eta ura.
- Informazio gehiago: lhusurbil.eus / Etarate bidea, 9 (Zubietan) 943 36 46 00 eskola@lhusurbil.eus
- Jendaurreko ordutegia: astelehenetik ostiralera 9:00-14:00 artean, astelehenetik ostegunera 16:00-18:00 artean.

Oinarritzko Lanbide Heziketa:

- Epea: ekainak 4-15 (bi egunak barne).
- Ikasketa eskaintza: sukaldaritza eta jatetxea; ile-apainketa eta estetika.
- Nori zuzendua: 15-17 urte arteko gazteak, DBH graduatua ez dutenentzat.
- Xehetasun gehiago: Oinarritzko Lanbide Heziketako titulua (lan munduratzeko errazten dien profesionaltasun-ziurtagiria) eta DBHko graduatua lortzeko aukera, baita erdi mailako zikloetara sarbide zuzena ere.
- Izen ematea (doan): Atalluko egoitzan (aurrez hitzordua eskatuta) edo on-line bidez ohl.usurbil.eus web orri berrian.
- Informazio gehiago: ohl.usurbil.eus Zanziura 3, Atallu 943 36 04 65 / lhi@usurbil.eus



TXALAPARTA TXOKOA



TXTXTX

Txalaparta Txokora irteera.

Oreka TX-ko kideek Txalaparta Txokoa erakutsiko digute eta txalaparta jotzeko aukera izango dugu!!

9:30etan Mikel Laboa plazatik irtengo gara.
Bisita 11:00etan izango da.

Aurrez izena eman behar da: 607609379

EGUNA

Ekainaren 17a, igandea

ORDUA

11:00etan

TOKIA

Txokoaldeko Geltoki zaharrean.

📞 607 609 379 / 943 360 321

🌐 www.mintzalagun.blogspot.com

✉ usurbil@aek.eus

📌 [mintzalagunak gara](#)



Usurbilgo Udala

aek

Etumeta Euskolagia
www.usurbil.blogspot.com

noqua

praktikoa



Pilota jaialdiko beste protagonistak



Pilotarien kamiseta bana eta Saizar Sagardotegian otordu bat. Sancho eta Xalarekin ageri direnek sari horiek eskuratu zituzten larunbateko partidaren.



Garfe enpresak Usurbilgo Udalaren laguntzaz antolaturiko jaialdiak jende askoren interesa piztu zuen. Amaieran, hainbat zozketa egin ziren. Argazkian dituzue sarituak eta estelarreko pilotariak.

Larrarte-Maiza eta Balerdi-Arrillaga arteko pala partidarekin hasi zen jaialdia. Ondoren jokatu zen Xala-Santxez eta Santxo-Gorrotxategi bikoiteen arteko pilota partida.

Partiden amaieran iritsi zen sari banaketa. Irudian dituzue

kamiseta bana jaso eta Saizar Sagardotegian bi pertsonentzako otorduaren irabazlea.

Asteburuko emaitzak

Usurbilgo Pilota Txapelketa aurrera doa. Astebukaerako emaitzak hauek izan dira:

Jubenil mailan:

Galarraga-Urbieta (Usurbil) 22
Salegi-Odriozola (Zestoa) 19

Iruretagoiena-Albeniz (Usurbil) 22
Sein-Iñarra (Oiartzun) 12

Senior mailan:

Adonis-Aranguren (Amezketta) 22
Urmeneta-Aranburu (Errenteria) 11

Xabi Santxo, zaletu artean



Lagunekin batera ageri da Usurbilgo pilotaria.

Garfe enpresak maiatzaren 25ean antolaturiko pilota jaialdian parte hartu zuen usurbildar bakarra duzue, sare sozialen bidez zabaldu duten

ondoko irudian. Lagunez inguraturua, pasa den ostiraleko pilota jaialdian. Gorrotxategirekin batera, Xala eta Santxezen aurka lehiatu zen Santxo.

Bera Bera, Ligako txapeldunak



Esther Arrojeria eta Estitxu Berasategi ageri dira argazkian.

Zuazo garaituta (24-28) Ligako txapelduna dugu Donostiako Bera Bera taldea. 2012az geroztik, bosgarrenez irabazi dute txapelketa. Hiriburuko taldea

izanagatik, Usurbilekin lotura estua du. Taldea garaipenera eramanez kideen artean, bi herritar ditugu; Esther Arrojeria eta Estitxu Berasategi. Zorionak!

TTAKUN KULTUR ELKARTEAK KUDEATZAILEA BEHAR DU

Elkartearen kudeaketaz, plangintzaz, antolakuntzaz eta jardun-ekonomikoaren kontrolaz arduratzeko. Baliabideak optimizatuz, plan estrategikoa garatuz...

• Ezinbestekoa:

- Euskara eta gaztelera ahoz eta idatziz menperatzea.
- Goi-mailako ikasketak izatea (goi-mailako zikloa, diplomatura, gradua, lizentziatura).
- Talde gidaritzan eta euskalgintzan eskarmentua.

• Baloratuko da:

- Antolakuntza, komunikazioa, lantaldeen koordinaziorako eta giza harremanetarako gaitasuna.
- Ekonomia ezagutzak: diru-laguntzetan eskarmentua, zuriketak, aurrekontuak...
- Taldean lan-egiteko gaitasuna.
- Egitasmo berriak sortu eta proposatzeko gaitasuna.



Bidali curriculuma: ttakun@ttakun.eus • Geltoki kalea 4, Lasarte-Oria • 943 37 14 48

ELEKTRIZITATE-
ELEKTRONIKA

FABRIKAZIO
MEKANIKOA

ADMINISTRAZIOA

ENERGIA ETA URA,
PRODUKZIO ZERBITZU
ETA MANTEN.

Usurbilgo Lanbide Eskola

AURREMATRIKULAZIOA!

www.Ihusurbil.eus

EKAINAREN 4 TIK 15ERA (BIAK BARNE)



Gai eta Erri Mutilako
ZIKLOAK

Lanerako Prestakuntza
IKASTAROAK

Berrituntza
PROIEKTUAK

...



USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA

CIFP USURBIL LHII

Ikastolaren 50. urtemugako ospakizun astearen abiatzea

50. urtemugako ekitaldien aste nagusian sartze-
ra goaz. Larunbaterako
(ekainak 2) iragarri duten Haur
Hezkuntzako ikasleen jaialdia-
rekin abiatuko dituzte ospaki-
zunak. “Aurten ikastolaren 50.
urteurrena dela eta, Ikastola
eguneko HHkoen ikuskizunean
ikastolaren 50. urteurreneko
ekitaldien astearen irekiera ofi-
ziala emango da.

Ikuskizun honetan, ikasto-
laren omenezko gauza asko
ikuski eta entzun egingo dira,
partehartze handiagoa izanik
aurtengoan. 29 urtez antolatu-
tako ikuskizunaren sena man-
tenduz, Ikastolaren berotasuna,
zabaltasuna, globaltasuna, her-
ritartasuna... agerian utziko
dute honetan ere. Sintonia en-
tzuten hasiko gara, oilo ipurdia
gorputzean eta emozioa biho-
tzean”, iragarri dute Udarregi
Ikastolatik.



Larunbat honetan, eguerdiko 12:00etan hasiko da Haur Hezkuntzako ikasleen jaialdia.

Larunbat honetan, bazkaria Saizarren

Egun berean, ekainaren 2an
ikastolako 50 urteotako kideak

bazkari baten bueltan bildu nahi
dituzte Saizar Sagardotegian.
Adi, txartelak maiatzaren 31 bai-
no lehen eskuratu behar dira.

Ikastolak 50 urte

Maiatzak 31, osteguna

- 18:00/18:30 Udarregi Ikas-
tola, Irakaskuntza Kooperatiba
Elkartearen ohiko batzar oroko-
rra Sutegin.
- 2017ko Ohiko Batzarraren akta
irakurtzea.
- 2016-2020 Plan Estrategikoaren
hedapen-jarduerak azaltzea.
- 2017 urteko kudeaketa azter-
tzea eta, hala badagokio, ekital-
diko kontuak onartzea.
- 2017 ekitaldiko irabazien ba-
naketa edo, hala balebago, ga-
laren inputazioa.
- 2018rako Aurrekontuak eta,
hala balebago, onarpena.
- Artezkari-tza Kontseilua eta
Zaintza Batzordea berriztapen
partziala.
- Akta izenpetzeko bi bazkide
hautatzea.

-Galde-erantzunak.

Ekainak 2, larunbata

- 12:00 Ekitaldi ofiziala eta
Haur Hezkuntzako haur jaial-
dia.
- 13:00 Trikitilarietako poteoa.
- 14:00 Udarregi Ikastolaren
50. urtemugako bazkaria Saizar
Sagardotegian, ikasle, familia,
ikasle ohi eta gurasoentzat. Sa-
gardotegiko menua.
Txartelak Aitzagan, Txiri-
bogan, Bentan, Txirri-stran eta
Bordatxon salgai, maiatzaren
31ra arte.
Prezioa: 30 euro (me-
nua + kafea + txupittoa).
- 18:00 Jolasak kalean.
- 17:00 Potxoenea ondoko Ola-

Ekainak 8, ostirala

- noenea plazako anfiteatroan,
“Tenderetea” antzezlan, Bapa-
tean Zirko taldearen eskutik.
- 18:00 Txokolate jana Askata-
suna plazan.
Antolatzailea: Hitz Aho, Uda-
rregi Ikastolako Guraso Elkar-
tea.
- Ekainak 9, larunbata
- 08:30 Esnadeia kaleetan ze-
har.
- 10:00-12:00 Jokoak Ikastola
inguruan.
- 14:00 Herri bazkaria fron-
toian.
- Bazkalostean, musika Ttipika
Dantza Gidatuak taldekoekin.
- Informazio gehiago:
udarregi.eus
- Antolatzailea:
Udarregi Ikastola.

Sorosle eta lehen sorospen ikastaroa

DYA Gipuzkoak Usurbilen
duen egoitzan eskainiko da
ikastaroa, euskaraz.

Ikastaroaren iraupena bi
astekoa izango da: ekainaren
11tik 22ra arte, lanegunetan,
18:00etatik 21:00etara. “Bi-
hotz eta birika susperketa,
zauriak, hausturak, erredu-
rak... Ezagupen oso arrun-
tak baina laguntza asko
eman dezaketenak iraka-
tsiko dira”, DYAtik aditzera
eman dutenez.

Prezioa, 110 euro

Ikastaro amaierako frogak
gaitzen dituenak, DYA
Gipuzkoak eskaintzen duen
Sorosle Titulua eskuratuko
du. Matrikularen prezioa
110 eurokoa da, ikastarorako
txostena barne.

Izen ematea

Izena emateko edo informa-
zio gehiago jasotzeko, deitu
943464622 telefono zenbakira.

Erabakitzeko hamaika arrazoi plazaratu dituzte usurbildarrek

Erabakitzeko 2019 arrazoi eta gehiago dago. Usurbilen soilik arrazoi mordoxka plazaratu zituzten herritarrek, Gure Esku Dago-ren herri mailako lan taldeak larunbatean antolatu zuen Klik Egunean. Pentsioak, bizi kalitatea, hezkuntza, euskara, askatasuna, nortasuna, herri honen etorkizuna, parekidetasuna... hamaika arrazoi idatzi eta zintzilikatu zituzten, erabakitzeko arrazoiekin osatu zuten zuhaitzean.

Mikel Laboa plazan egitekoak ziren arren, giro euritsua tarteko, ekimena Askatasuna plazako aterpera lekuz aldarazi behar izan zuten. Haurrek panpinekin giza kate bat diseinatu zuten. Jan edana ere eskaini zuten ekitaldian, ekainaren 10eko giza katea girotzeko baliatu zutena.

Zergatik eta zertarako erabaki?

- Euskal Herriatik eta Euskal Herriarentzat pentsatuta, hezkuntza sistema propioa osatzeko.
- Euskaldunak garelako, ez espainolak ezta frantsesak ere.
- Nahi duguna egiteko eta euskaraz bakarrik hitz egiteko.



Hamaika arrazoi idatzi eta zintzilikatu zituzten, erabakitzeko arrazoiekin osatu zuten zuhaitzean.

KLICK EGUNA

“Mikel Laboa plazan egitekoak ziren arren, giro euritsua tarteko, herri ekimena Askatasuna plazako aterpera lekuz aldarazi behar izan zuten”

- Erraustegirik ez izateko.
- Jubilatuei paga gehiago eman behar zaie! Bestela diru gabe geldituko dira eta ez dugu nahi hori pasatzea!
- Mozal Legeari ez.
- Euskara mugarik gabe.

- Euskal herritar librea izateko euskal errepublika librea.
- Guk nahi duguna izan, inork ezer esan gabe! Gu, gu garelako, ez beste inor!
- Demokrazia batean herritarrok iritzia ematea ezinbestekoa delako.
- Aske izateko.
- Lasai bizi ahal izateko.
- Gu errespetatzeko.
- Iritzi desberdinak azalertzeari garrantzitsua delako.
- Gure herriarentzat egokien deritzogun aukera bermatu ahal izateko, hezkuntza sisteman, gestioan...
- Gu garena izan behar dugu.
- Neskak eta mutilak berdin tratatu behar ditugu.
- Natura zain dezagun.

Larunbat honetan, antolaketa lanetan laguntzeko batzarra

Etorkizunari eskua emateko astebete baino ez da geratzen jada. Prestaketa lanak azken txanpan dituzte. Adi; dakizueenez, oraingoan bai, 201,9 kilometro luze izango dituen giza katearen 9 kilometro Usurbilgo lurretatik igaroko dira. Ia denak (Kale Nagusitik egingo duen zeharkaldia salbu), N-634 errepidean barrena. Haietatik bi kilometro (11 eta 12garrenak),

Troia ingurutik Kaparotz artekoak, eta Aginaga Kaxko pareko 500 metro herritarrek osatuko dute. 1.000 lagunetik gora beharko dira. Jada 700 lagun inguru izena emanda zeuden aste hasierarako. Adi, asteburu hau duzue izen emateko azken aukera.

Usurbildarrekin batera, Buruntzaldeko gainerako udalerrietako herritarrek osatuko

dituzte Usurbilgo lurra zeharkatuko dituen gainerako giza kate zatiak. Aipatu moduan, nagusiki, N-634 errepidetik barrena igaroko da giza katea. Errepidea ixtea ez da aurreikusten, erreiletako bat baliatuko da giza katerako. Honenbestez, bolondresak beharko dira trafikoa bideratzeko, baita eskualdetik datozen gainerako herritarren autobusei harrera

Bideoklipa sarean

Giza katerako girotzen hasteko, Lander Garroren zuzendaritzapean, Gure Esku Dago apirilaren 15ean Usurbilen, Donostian eta geroago Gasteizen grabatu zen bideoklipa sarean duzue ikusgai, gureeskudago.eus atarian. “Etorkizuna dugu irabazteko” dio ikusentzuenekoaren izenburuak.

Giza kateari begirako deialdiak

- Ekainak 1-3: izen emateko mahaia azken aldiz, frontoi inguruan (ostiralean, 18:30-20:30 / larunbat nahiz igande eguerdian, 12:00-14:00).
- Ekainak 2, larunbata: giza katearen antolaketan parte hartu nahi dute boluntarioentzat herri batzarra 12:00etan Potxoenean.

Giza kate eguna

Ekainak 10, igandea

- 10:00 Norberak dagokion giza kateko kilometrora hurbildu beharko du.
- 10:00-11:30 Giza katearen antolaketa.
- 12:00-12:30 Giza katea.
- 13:30 Jai giroa iluntzera arte Donostian, Bilbon eta Gasteizen.

Informazio gehiago:

Facebook: GureEskuDagoUsurbil
Twitter: @GureEskuDagoU
gureeskudago.eus

egin eta aparkalekuetara bideratzen laguntzeko.

Batzarra, Potxoenean

Zereginotan laguntzera animatzen dute Usurbilgo Gure Esku Dago lan taldetik. Boluntarioentzako argibideak eskaintzeko, batzar irekia deitu du larunbat honetan 12:00etan Potxoenean. “Animatu! bolondresak behar dira”, ohartarazi dute.

Joan Mari Torrealdai: “Liburuan jaso ditudan testuen jatorria supremazismoan dago”

Joan Mari Torrealdaik *Asedio al euskera* (Txertoa) liburua argitaratu berri du. Euskararen kontra hartu diren neurriak eta egin diren adierazpenak batu ditu bertan. Joera horren atzean ideologia supremazista ageri dela dio. Gaztelania goiraipatu eta euskara mespretxatzeko dinamika. Liburua hobeto ulertzeko gako ugari eskaini dizkigu Torrealdaik.

NOAUA! El libro negro del euskera liburua plazaratu eta hoguei urtera dator *Asedio al euskera*. Zenbat du berriak zaharretik?

Joan Mari Torrealdai. Familia berekoak dira. Berria helduago da, landuagoa. Duela hoguei urte atera nuena liburu honen barruan dago baina, hala ere, *Asedio al euskera* (Txertoa, 2018) liburuko edukia %71 berria da. Alde guztietatik gaintzen du aurrekoa. Informazio gehiago du eta aldi historiko luzeagoa hartzen du. Gainera, honek badu saiotik. Hizkuntza linguistikoaren planteamendutik badu autorearen produkzio propioa. Eta hitzaurrea ere hor dago. Juan Carlos Moreno Cabrerak idatzitako sarrera bikaina.

N. Hitzaurrean, Juan Carlos Moreno Cabrerak dio ideologia supremazista gailendu dela Espainian.

Egia hori da. Fokua zabaldu beharra dago. Hizkuntzaren eta euskararen kontra egiten dute, baina zergatik? Non dago horren arrazoia? Intelektualen iritziak pilatzen dituzunean, corpus bat sortzen duzunean, bi elementu nabarmentzen dira: batetik, eduki aldetik zer nolako batasuna daukaten testu denek. Horren arrazoia zein da? Perspektiban dago erantzuna. Supremazismoaren logikan. Horrek esplikatzen du dena.



Joan Mari Torrealdaik bere etxean hartu gintuen eta *Asedio al euskera* (Txertoa, 2018) liburuaz luze eta zabal hitz egiteko aukera eskaini zigun.

JOAN MARI TORREALDAI

“Buelta eman diote egoerari. Historikoki begiratuta, hizkuntza bat inposatu dute hemen. Orain, zuk zure espazioa errekuiperatzeko egiten duzun guztia inposizioa da eurentzat. Eta eskubideen eskaerez ari gara”

Bigarren elementua tonua da. Agresiboa da. Iraingarria. *Matxismo diskurtsiboa da nagusi*, Sanchez Cuencaren definitzioa nirea eginez. Testosteronaz beteriko idatziak dira.

Jaso ditudan testuen hari nagusia eta jatorria supremazismoan dago. Fokua aldatu egin behar dugu, hortaz. Euskararen azterketatik pasa behar dugu euskara egoera honetan jarri duen hizkuntzaren azterketara.

N. “Mientras exista esa ideología supremacista en torno al español, el euskara seguirá

siendo el objetivo de todo tipo de falsedades, insidias, restricciones, ataques y condenas”. Hitzaurrean, Moreno Cabrera katedradunak ez du panorama polit bat irudikatzen.

Guk euskararen alde gauza asko egin genitzake baina supremazismoan sinisten duen hizkuntza bat daukagun bitartean, jai dugu. Zergatik? Lege guztiak haren aldekoak izango direlako. Ez hori bakarrik. Hizkuntza zein komunikazio funtzioa harena izango da eta euskarari bigarren mailako funtzioak utziko zaizkio.

Logika horrek irauten duen bitartean, gure hizkuntza politika guztiak izango dira behartuak, izango dira inposizioak. Buelta eman diote egoerari. Historikoki begiratuta, hizkuntza bat inposatu dute hemen. Orain, zuk zure espazioa errekuiperatzeko egiten duzun guztia inposizioa da eurentzat. Eta eskubideen eskaerez ari gara.

“Hiztun komunitateen arteko talka bat da”. Hori sinetsiarazi

nahi digute.

Eta ez da horrela.

Nafarroan argi eta garbi ikusten da.

Garbi-garbi. Zergatik ematen die horrenbeste min hizkuntza politikak? Azkenean proportzio oso txikitik gabiltza. Nafarroan %9 izango da euskalduna. Zergatik orduan? Ba horregatik. Absurdia iruditzen zaie euskarari bere espazioa ematea.

Supremazismoa horrelako kontuetan islatzen da, ezta?

Azpi-azpian hori dago. Beraiek ez dute aitortuko. Guk beti nazionalismo espainoletik egindako kritika gisa hartu izan dugu. Egia da. Baina nazionalismo espainola beste modu batekoa izan zitekeen, eta momentu honetan ez da horrela. Hizkuntzaren ikuspuntutik, nazionalismo espainola supremazista da. Juan Carlos Moreno Cabrerak oso ondo definitzen du: *supremacismo lingüístico españolista*. Hiru kontzeptuek dute beren inportantzia.

“Intelektualek aginte politikoaren jarrera legitimatzen dute”


NOAUA! Epeari dagokionez, XVIII. mendetik aurrerako legeak eta iritziak batu dituzu liburuan. Konstante baten lekuko da zure liburua.

Joan Mari Torrealdai. Hala da. Eta konstante horiek azpian duten esplikazioa hori da, hizkuntzaren kontzepzio horixe bera. Baina ez bakarrik hizkuntzarena, baita agintearena ere. Kontzepzio politiko bat dago horren azpian. *La lengua es compañera del imperio* esan zuen Antonio de Nebrijak gaztelaniazko lehenengo gramatika liburua egin zuenean. Eta logika horrek bere horretan jarraitzen du. Hizkuntza komunitate bat nagusi gertatzen denean, harek bere hizkuntza ere inposatu egiten du.

Maiz esaten digute gure ahalegina ez dela errealista, euskara guztion hizkuntza nazionala egin nahi dugula, euskara inposatuz... Begira, Frantziako Iraultza egin zenean, frantsesa ezagutzen zuen %11k. Beste batzuk diote herritarren %25ak ezagutzen zuela. Paris inguruan hitz egiten zen nagusiki. Gainontzean okzitaniara hitz egiten zen edo euskara edo bretoiera... Eta alemaniera edota italiara Frantziaren mugetan. Baina aginte batek erabakitzen duenean bere hizkuntza hura dela, gauza guztien gainetik hori inposatu egiten du. Logika hau ezarriko dute: “Frantsesa da Frantziarekin, iraultzarekin, estatuarekin, nazioarekin identifikatzen gaituen hizkuntza”. Eta hori horrela izan dadin, frantsesa inposatuko da Frantzian.

N. “Legeak” eta “Iritziak”, bi multzo horiek egituratzen dute liburua corpusa.

Bi bektore nagusi horiek ageri dira liburuan. Batetik, legeak eta agintea. Eta horrek bere bidea du. Euskararen bazter-



“Euskararen bazterkeria ulertzeko moduko legeak batu ditut liburuan”. Liburua aurkeztu zuen eguneko argazkia. Egilea: Txertoa.

JOAN MARI TORREALDAI

“Frantzian ere badira hizkuntzaren aurkako jarrerak, baina ez dute tonu hau”

keria harrapatzeko moduko legeak batu ditut liburuan. Gero datoz intelektualak (“Iritziak” atalean jasotako aipuen egileak). Buruarekin funtzionatzen dutenak eta ez aginte politikoarekin. Filosofoak, kazetariak, zientzia gizonak, intelektualak... Horiek badute elementu bat komunean. Liburu honetan agertzen diren guztiek apuntalatu egiten dute aginte politikoak egiten duena. Beraz, aginte politikoaren jarrera legitimatzen dute. Faktore legitimatzaile bezala daude intelektualak hemen.

Frantzian, aldiz, ezberdina da. Intelektualen korrante nagusiak aginteari egiten dio aurre. Gehiegikeriak eta abusuk salatuko izan ditu.

N. Zer aldatu da azken hogeitun urteotan? Bilakaerarik egon al da?

Gai hauetara gutxi gerturatzen den batek pentsa dezake gauza hauek Frankismoaren garaiak izan zitezkeela. Hizkun-

tza politika jakin bat ez dagoenean egindako gehiegikeriak. Diktaturako gauzak. Badator demokrazia, usteko demokrazia, eta hara non gutxitu ordez gehitu egiten diren. Zergatik? Feminismoarekin alderatu daiteke. Feminismorik ez zegoenean, ez dago feminismoaren aurkako artikulurik. Baina emakumeak hasten direnean ustez berea dena erreklamatzeko edo bide bat egiten, orduan datozkie egurrean etengabe. Hori da gertatu dena.

Hizkuntzaren inguruko kontuak betidanik jarraitu ditut hurbildik eta ni neu harrituta geratu naiz okerrera nola goazen ikusita. Gainera ez bakarrik edukietan, asko eta asko hutsalak dira-, baita tonuan ere. Ikastoletan bahiketak egiten irakasten dela, gorrotoaren asignatura bat dagoela... Horrelakoak esaten dira eta inork ez du konturik eskatzen.

N. Oso merke ateratzen zaie.

Debalde! Txaloa du ondorio bezala. Hori fenomeno harri-garria da. Frantzian ere badira hizkuntzaren aurkako jarrerak, baina ez dute tonu hau. Plan-teamendu politiko garbi bat dute, baina ez agresibitate hau.

“20 urteotan indarberritu egin da errebisionismo linguistikoa”

NOAUA! Errebisionismo linguistikoa loratu egin dela diozu. Fenomeno horri atal bat eskaini diozu. Bi tesi nagusitzen dira kapitulu horretan: “euskara ez zen inoiz debekatua izan” eta “euskararen galera euskaldun hiztunon kontua da”.

Joan Mari Torrealdai. Hogeitun urteotan indarberritu egin da errebisionismoa. Batzuetan negazionismora iristen da. Beste batzuetan erlatibizatzen egiten da, diktadura garaiko jazarpena ez zela hain-besterako esanez bezala.

N. Horren lekuko dira hitzok: “La lengua vasca nunca ha sido perseguida sino abandonada espontáneamente por sus hablantes, conscientes de su escaso valor, por lo que la normalización lingüística no tiene justificación histórica”. Jon Juaristi-renak dira hitz hauek. 2003 urtekoak dira.

Errebisionismorako joera beti egon da baina Ermuako Izpirituarekin indartu egin zen jarrera hori. Mayor Orejaren garaian, plan bat jartzen da martxan. Hizkuntza, politika, kultura... Dena sartzen da plan horretan. Hor dago *Todo es ETA* logikaren ernamuina. Burrunba horretan, intelektual asko sartu ziren. Eta errebisionismo horretan, Franco ere on egitera joko dute inoiz. Diktadura *diktatublanda* bihurtuz. Izpiritu horretan ondo kokatzen da hau guztia. Hor bada politika egiteko modu bat. Hizkuntzaren fokua zabaldu egin behar da hortaz, eta guztia batasun batean ikusi.

Joan Mari Torrealdai: “Egunkaria auziaren inguruan liburu bat egiteko asmoa dut”

NOAUA! Dena da ETA tesia euskara eta euskal kulturaren aurka jotzeko baliatu izan da. *El libro negro del euskara* (1998) eta *Asedio al euskera* (2018) liburuen arteko epean eman zen *Egunkaria* auzia. Urte horietan pairatutako guztiak jarri al zaitu liburu hau idaztera?

Joan Mari Torrealdai. Ez zuzenean. Material hori bilduta daukat eta *Egunkaria*-ren inguruan liburu bat egiteko asmoa dut. *Asedio al euskera* idazteari zergatik ekin nion galdetzen badidazu ba ez nuke jakingo kausa zehatza azaltzen. Agian hogeitau urte pasa izana eta egoera okerrago ikusi izana. Diagnosi batera iritsi nahiak, seguruenik.

Azken hogeitau urteotako balantzeak erakutsi dit atzetik zer dagoen. Neurri handi batean deskubrimendu bat izan da niretzat. Ze koherentzia daukaten iritzi artikuluek, ze intentzio politikoa daukaten azken batean, ze ikuspegi politikotik ari diren hitz egiten... Baina haiei ez esan nazionalismo espainoletik ari direnik. Eurentzat nazionalista beti da bestea.

N. 15 urte dira *Egunkaria* itxi zutenetik. ETB1eko *Ur handitan* saioan, zure seme alaben azalpenak entzun genituen



“Egunkaria itxi ondoren sekulako babesa jaso genuen hemen. Horrek mantendu gaitu zutik”.

JOAN MARI TORREALDAI

“Ur handitan telebista saioan konturatu nintzen min horiek hor daudela oraindik eta agian uste baino gehiago sufritu zutela nire seme-alabek”

lehen aldiz. Zuretzat ere hala izan al zen?

Bai, hala izan zen. Nik ere orduantxe entzun nituen lehen al-

diz. Gauza batzuekin harriritu geratu nintzen. Nik uste baino min gehiago zeukaten barruan. Atera gabe. Seguruenik denok dugun bezala. Hor konturatu nintzen min horiek hor daudela eta agian uste baino gehiago sufritu dutela. Gu beti saiatu gara seme-alabak babesten baina gai honi buruzko monografikorik egin gabea genuen.

N. Mina egina dago baina horrelako saio batek eta saioaren

ondoren jasotako berotasunak oinazea arintzen lagunduko du, ezta?

Zalantzarik gabe. Gu zorte handikoak izan gara. *Egunkaria* itxi ondoren sekulako babesa jaso dugu hemen. Eta horrek mantendu gaitu zutik. Zeren isolamenduan harrapatzen bazaitu, ezin diozu modu horretan aurre egin. Gauza horiek asko laguntzen didate, egia esan. Eta ez da errekonozimendu gosea. Uler-tua izatea baizik.

Hitzaurrearen inguruko pasadizo bitxia

NOAUA! Ez zenuen aurretik ezagutzen baina, hala ere, Juan Carlos Moreno Cabrera hizkuntzalariarengana jo zenuen hitzaurre eske. Bere idatzia oso esanguratsua da, bide batez esanda.

Joan Mari Torrealdai. Madril-darra da. Bere liburu asko ditut. Banuen bere berri baina urrutiti zegoen eta ez nuen

hurbiltasunik inolaz ere. *Errores y horrores del españolismo lingüístico* (Txalaparta, 2015) liburuaz plazaratu zuen eta bertan bada *El españolismo lingüístico y el euskera en Navarra* izeneko atala. Liburu hori irakurri eta gero otu zitzaidan hitzaurrea berari eskatzea. Kontseilura eta beste toki batzuetara jo nuen kontaktu eske

baina ez nuen lortu. Txalapartarekin atera zuen liburu hura eta argitaletxeok eman zidaten bere telefono zenbakia. Hala ere, Madrilera joan eta bere Unibertsitatean bertaratu nintzen. Nire burua aurkeztu eta, hara non, bazuen nire berri. Ezagutzen ninduen. “Jakinen harpidedun naiz 20 urtez”, esan zidan. Pentsa, ba-

tean eta bestean ibili nintzen galdezka eta etxean bertan nuen bere kontaktua! Zeinek pentsatuko? Euskara ikasi du eta euskaraz jarduten dugu emaillez.

Horrelaxe iritsi nintzen berarengana. Oso jarrera ona azaldu zuen eta nire liburuak hitzaurrea egitea ohore bat zela berarentzat; halaxe esan zidan.

Mendeku Itxuaren itzulera

Itzuleren garaia bizi dugu eremu batean baino gehiagotan, baita musikagintzan ere. Bost urteko etenaldiaren ostean, aurrez hamarkada luze bateko ibilbidea osatu zuen Usurbilgo talde ezagun bat bueltan datorkigu laster.

Ixak Arruti, Ander Aizpurua, Martin Larrañaga eta Iñigo Roteta laukotea edo Mendeku Itxua oholtza gainean ikusiko ditugu berriz laster. Sare sozialetan iragarri dutenez, ekainaren 15ean Oñatiko Gaztetxean kontzertua eskainiko dute. Eta gero etxean! Usurbilgo jailetan izango ditugu, ekainaren 30eko kontzertu gauean.



Ekainaren 15ean Oñatiko gaztetxean joko dute eta ekainaren 30ean Santixabel jailetan. Argazkia: Zuzeneko Taupadak.

Sortzaile usurbildarrekin solasean

Arteari, euskarari eta aisiari eskainitako maiatza borobiltzeko, usurbildar sortzaileekin solasaldia antolatu zuen maiatzaren 25ean Potxoenean, Usurbilgo gazte mugimenduak. Hitzordura, antzerkigintza, argazkilaritza, idazketa, marrazkilaritza, diziplina guztiotako ordezkari eta artista herritarrak gongoratatu zituzten; Ugaitz Agirre, Ixabel Agirresarobe, Ibai Arrieta eta Joseba Larratxe. Haien ibilbidea ezagutzera eman eta euskal sortuntzaz aritu ziren solasean.



Potxoenean hurbildu zirenek Ugaitz Agirre, Ixabel Agirresarobe, Ibai Arrieta eta Joseba Larratxeren azalpenak entzuteko aukera izan zuten.

SagardoHop festa Iruin

Sagardotegian

Latindar hip hop doinuek giroturiko jaialdia antolatu dute ekainaren 9an Zubietako Iruin sagardotegian. "Sei izango dira erritmoa jartzeko arduradunak", iragarri dutenez. 19:00etan hasita, Bamboo Dance, Ossian, Mde Click, Elfomega + Nöiz eta W. Chef, Sho-Hai. Musika jaialdi honetan, sagardotegiko menua dastatzeko aukera eskainiko dute; bakailu tortila, txopitoak, txuletoia eta gazta sagar gozoa eta intxaurrekin.

Emailaz eman izena

Berlaratu nahi duenak ahal bezain laster email bat bidaltzeko deia egin dute sagardohop@gmail.com helbidera. "Emaila bidali eta gero erreserba egin ahal izateko jarraibideak jasoko dituzue", ohartarazi dute sagardotegitik.

Informazio gehiago:

943361229
iruinsagardotegia.com

"Sagarrondotik Sagardora" ikastaroan

Alkartasuna Kooperatibak antolaturiko ikastaro praktikoko hurrengo saioa larunbat honetan, ekainaren 2an, 09:00-13:00 artean Potxoenean. "Sagastien udako kimaketa, gaitzak eta izurriteak" Aitor Etxeandiarekin.



Euskaraldia plazaratzeko herri agerraldia egingo da

Euskararen erabilera areagotzeko urte amaierarako Euskal Herri mailan deitu den Euskaraldia ekimenarekin bat egin du herri honek. Talde eragile bat ere osatu da, egitasmo hau herri mailan bideratzeko. Po-txoenean biltzen dira tarteka. Ekimenari bultzada emateko, plazara aterako dute orain Euskaraldia.

Ekainaren 8an, ekitaldia

Mikel Laboa plazan

Herri agerraldia iragarri dute ekainaren 8rako 19:30ean Mikel Laboa plazan. Hitzordu honen bidez, Euskaraldia sustatu eta ekimenari babesa adieraz-



Ekainaren 8an, arratsaldeko 19:30ean Mikel Laboa plazan. Hitzordu honen bidez, Euskaraldia sustatu eta ekimenari babesa adierazteko aukera izango da.

teko aukera izango da. Agerral-deia ireki honetan parte hartzeko

deia egiten zaie herritar nahiz eragile orori.

Euskara ikasi edo hobetzeak, oporrik ez

Euskalduntze nahiz azterketa ezberdinak prestatzeko barnetegiak Euskal Herri luze zabalean, familia barnetegi eta ibiltariak, ikastaro trinkoak eta on line ikastaroak euskaltegi-tan... Eskaintza zabala prestatu du AEK-k uda parterako. Matrikulazio epea zabalik dago jada. Usurbildik mugitu gabe, Etumeta AEK euskaltegiak, B2 eta C1 mailak prestatzeko ikastaroak eskainiko ditu udan. Ikastaro bakoitza 80 ordukoa izango da. Prezioa, 136 euro. “Uztailean edo irailean eman-gogor dira”, iragarri dutenez.

Informazio gehiago:

Nagusia, 43
607 609 379
usurbil@aek.eus
aek.eus
muntteri.blogspot.com.es

Ikasturte berriari begira

2018-19 euskara ikasi edo maila hobetu nahi dutenek bestalde, aurrematrikulatzeko epea zabalik izango dute, ekainaren 19ra arte. “Ikastaroa ez egitea erabakiko bazenu, aurrematrikularen %100 itzuliko zaizue, irailaren 26a baino lehen jakinaraziz gero. Hortik aurrera, matrikula-itzulketen ohiko baldintzak aplikatuko dira”. Bestalde, ikasturte berrira begira, AEK-k matrikula bat zozketatuko du AEK-ko ikasleek euskaltegian ikasten hasteko proposatzen dituzten lagunen artean. “Era berean, sariduna gonbidatu duen ikasleak %50eko beherapena izango du ikasturte horretako matrikulan”. Gogoan izan, euskara ikasteko diru-laguntzak eskaintzen dituela Usurbilgo Udalak, laster egingo du deialdia.

UEU-ren Jakin jardunaldia, Usurbilen

Zabalik segitzen du Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) Usurbilgo Udalarekin eta Jakin Fundazioarekin elkarlanean, uztailearen 12 eta 13rako Udarregi Ikastolan antolatu duen Jakin Jardunaldian matrikulatzeko epeak. Honatx aurtengo edizioko izenburua: “Utopia 68/18. Iruditeria berrien bila”.

Izen ematea irekita

Izen ematea ueu.es ataritik bideratu beharko da. Argibide gehiago web orrialde berean jaso ahalko dira.

Ekainaren 9an

Usurbilen, DYAre

sentsibilizazio eguna

“Zure eskuek bizitza bat salba dezakete” aldarrapean, zazpigarren urtez segidan, “BBS/CRP Eguna” antolatu du DYA Gipuzkoak ekainaren 9rako Usurbilgo plazan, 17:00-20:00 artean.

“Sentsibilizazio-kanpaina honekin Bihotz-Biriken Geldialdi baten aurrean jokatzeko garrantzia gogorarazi nahi dugu. Arrazoi honengatik urtero 30.000 pertsona inguru hiltzen dira, eta lehen 5 minututan bihotz-biriken suspertzea (BBS/RCP) egiteak biziraupena %70era igozten du. Gainera, BBS/RCP teknika oso erraza da -barneratzeko 10 minutu baino ez dira behar, nahiz eta aurretiko osasun formaziorik ez izan- eta edonoren eskura dago, bere sexua eta adina edozein izanda. Kanpaina honetarako, hainbat standak jarriko ditugu, bertan, nahi duen orok suspertze oinarritzko teknikak ikasi ahalko ditu doan”.

KzGuneako eskaintza

Ekainaren 1etik aurrera arratsalde, 16:00-20:00 artean. Datozen ikastaroak:

Ekainak 1-14


11:00-13:00 “Oinarritzko Interneta. Nabigatzen eta posta elektronikoak bidaltzen ikasi”.

Ekainak 15-26

11:00-13:00 “Komunikatu zaituz Sare Sozialen bitartez”.

Informazio gehiago:

Kale Nagusia, 37
943 023 684
tutor.usurbil@kzgunea.net



Ekainean arratsalde zabalduko dute KzGunea.

Aitor Arangurenen debutera joateko autobusa antolatu dute Aginagan

Ekainaren 23an, "Aginagan inoiz bizitu gabeko ospakizun bat bizitzera goaz. Aitor Aranguren pilotariak esku pilota profesionalen debutatuko du Tolosako Beotibar pilotalekuan". Hala dio NOAUA!ra igorri duten oharra. Bere senideen eta laguneren berotasuna sentituko du pilotari gazteak. Bidaia errazteko, autobusa antolatu dute. Izen ematea ekainaren 12an itxiko da.

Aitor Arangurenek Asegarce enpresarekin fitxatu du. Profesionaletakoa lehen partida ekainaren 23an jokatu du, arratsaldeko 18:00etan Tolosako Beotibarren. "Bertara joatera eta bide berri honetan animoak ematera gonbidatzen zaituztegu. Horretarako autobusa antolatu dugu".

Autobusa Aginagatik aterako da, Usurbilen geldialdi bat egingo du eta Tolosara abiatuko da



Gaztetatik trebea izan da Aitor Aranguren. Asegarce enpresarekin fitxatu berri du eta lehen partida ekainaren 23an jokatu du, Tolosako Beotibarren.

gero. Joan etorriaren prezioa 6 eurokoa da. Bestalde, "sarrerak nahi dituenarentzat ere, erreserbatzeko aukera egongo da". Sarreraren prezioa, 15 euro.

Partidaren ondoren, afaria

Irabazi ala galdu, hori da gutxienezkoa. Egun handia borobiltzeko afaria antolatu dutelako Aginaga sagardotegian. Menua hauxe izango da: en-


tsalada mistoa, bakailao tortilla, txuleta, postrea eta kafea. Prezioa, 20 euro.

Izen ematea

Informazio gehiago jaso edo izena emateko, bi telefono zenbaki aukeran: 695723192 (Aitziber) eta 680347768 (Leire). Aginagako Arrate egoitzan eta Aitzagan ere izango da izena emateko aukera.

Xabier Izeta, Zegama-Aizkorri

Mendi proba ikusgarri eta ezagunean parte hartu zuen Xabier Izeta usurbildarrak. Ez zuten meritu makala izan. Irristakorra eta lokaztua zegoen ibilbidea osatu behar izan zuten partaideek, Twitter bidez @undianokorta usurbildarrak helarazi digun Izetaren ondoko argazkia ikus daitekeen moduan. Rémi Bonnet eta Ida Nilsson lasterkariak nagusitu ziren maiatzaren 27an ospatu zen hamazazpigarren edizioan.



Irristakorra eta lokaztua zegoen ibilbidea.

Domina mordoa Judo Klubekoentzat

Usurbil Judo Klubak maila bikaina ematen segitzen du. Maiatzaren 20an, Las Palmasen Espainiako Master Txapelketan parte hartu zuten hainbat kideek. Klubetik aditzera eman dutenez, 4 domina irabazi zituzten, lehen hiru postuetan sailkatu ziren judoek.

Andoni Aizpuruak (-60 kg), Ion Martinek (-73 kg) eta Ru-

ben Rodenasek (-81 kg) bigarren postua eskuratu zuten. Hirugarrena, Iker Lizarribarrek (-100 kg). Xabier Sanchezek (-73kg) bosgarren amaitu zuten.

Maiatzaren 5ean bestalde, Talavera de la Reinan jokatuak Kadeteen Espainiako Txapelketan, Delia Medicesek (-40 kg) urrezko domina lortu zuen.



Lau dominarekin etxeratu ziren.

Igande honetan, Gipuzkoako Biraren bosgarren etapa

Ekainaren 3an, Udala eta Arlaban lotuko ditu Andatza M.K.T.-k antolatutako Gipuzkoako Biraren bosgarren etapa. Goizeko 07:30ean finkatu dute, autobusez Oiarde Kiroldigitik abiatzeko hitzordua. Izen ematea itxita dago. Informazio gehiago: andatza.com

Inaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
Info@inakiturgintza.com • www.inakiturgintza.com
600 024 825

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-a k egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Josue Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Agenda ekaina

01 ostirala

■ **Tomaxen abenturak.** 17:00etan Santueneko frontoian.

02 larunbata

■ **Irteera: Iruñeko Euskal Herria Kantuz Egunera** 8:30ean autobusez, Oiardotik (izen ematea maiatzaren 26an amaitu zen).

■ **"Sagarrondotik sagardora" ikastaroa.** 9:00etan Potxoenean.

■ **Ikastolak 50 urte: jaialdia** ikus 12. or.

03 igandea

■ **Gipuzkoako Bira: Udala-Arlaban.** 07:30ean autobusez, Oiardotik (izen ematea maiatzaren 30ean amaitu zen).

'Tomaxen abenturak', ostiralean Santueneko frontoian

4 urtetik gorakoentzat antolatu du Santuenea Kultur Elkartek haur ikuskizuna ekainaren 1ean, 17:00etan hasita auzoko frontoian. "Muxugorrik, Tomax liburutegira joateko kontentzuetako du, han ipuinekin, antzerkiak sortuko dituztelako. Beraz, "Txanogorritxo", "Hiru txerritxo" eta "Hamelingo txirularia", bere erara antzeztuko dute. Barre egin, ondo pasa, kanta, dantza eta magia guztiak dibertitzeko. Antzezlan familiarra: gurasoek ere primeran pasatzen dute".



"Txanogorritxo", "Hiru txerritxo" eta "Hamelingo txirularia", euren erara antzeztuko dute.

Harria Hitz, bisita gidatua Txokoaldera

Larunbat honetan, Harria Hitz bisita gidatuaren saio berria.

Ekainak 2, larunbata

■ 10:00 Harria Hitz bisita gidatua Usurbilgo herrigunean.

■ 11:15 TTXTX Txokoaldeko Txalaparta Txokoa ezagutzeko aukera.

■ Informazioa eta erreserbak:

688 818 017 / info@kultour.pro

"Sagarrondotik sagardora" ikastaroa

'Sagarrondotik sagardora' ikastaroak aurrera darrai. Ekainaren 2an larunbatarekin, Aitor Etxeandiak "Sagastien udako kimaketa, gaitzak eta izurriteak" hitzaldia eskainiko du. 09:00etatik 13:00era, Potxoenean.

Izen ematea eta argibide gehiago:

943 361 114

alkartasuna@usurbil.com

Datozenak

Ekainaren 8an, antzezlana

eta txokolate jana

Bapatean Zirko taldea Usurbilen izango da datorren astean. Ekainaren 8an ostiralarekin, Potxoenea ondoko Olañoenea plazako anfiteatroan arituko dira. "Tenderetea" antzezlana eskainiko dute arratsaldeko 17:00etan. Ondoren, txokolate jana Askatasuna plazan.

Antolatzailea: Hitz Aho, Udarregi Ikastolako Guraso Elkarte.

Ugaitz Agirrerren lehen nobelaren aurkezpena

Ekainaren 12an asteartea, Ugaitz Agirrerren Tximeletak bizkarrean (Susa) nobela aurkeztuko dute Donostiako Udal Liburutegiko sotoan.

Ekainaren 16an, herri omenaldia Joxean Artzeri

Ekainaren 16an egingo zaio herri omenaldia urte hasieran zendu zen Joxan Artze sortzaile usurbildarrari. Martxoan osatu zen batzorde bat ari da antolatzen omenaldi eguna. Poesia, txalaparta, musika ardatz izango ditu. Datorren astean emango ditugu xehetasun gehiago.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17

20170
USURBIL

ETXETRESNEN KONPONKETAK eta SALMENTA

MARKA GUZTIAK azkar, prezio onean
20 URTEKO ESPERIENTZIA

645417665

XABIER Usurbil

ZALDIGAIN

ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak...

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867
Fax: 943300045

Edertu zaitez!

INDIBA
DEEP BEAUTY
PROFIC BODY CARE SYSTEM

DESKONTU BEREZIAK

-ZELULEN BIRSORTZEA -LIPOLISISA -MODELAKETA -ERREAFIRMAZIOA
-AZALAREN TONIFIKAZIOA -OXIGENAZIOA -HIDRATAZIOA -LIFTING

✓ZELULITISAREN GUTXIAGOTZEA ✓AURPEGIA GAZTETZEA ✓ZIMURREN LEUNKETA
✓BULARREN ERREAFIRMAZIOA ✓SILUETAREN HOBEKUNTZA ✓AZALAREN INDARTZEA

www.enarestetika.com

Enar
ESTETIKA

BESTE TRATAMENDUAK : PRESOTERAPIA TERMOLINEA ELEKTROKUTITIA BOTO-TERAPIA

Munalurra 2, USURBIL 943 57 16 80



Ane
ILEAPAINDEGIA

Artzabal

**JUBILATUENTZAT
AUKERA ONENA**

Artzabal baserria 626 603 600

**UDABERRI BEGIRA
JARRI ZURE AZALA PREST**

AURPEGI GARBIKETA: 35€
GORPUTZGARBIKETA: 35€
PRESOTERAPIA:
SESIO 1: 20€ 10 SESIO: 125€

•PEDIKURA •MANIKURA,
•BETILEEN TINTAKETA IRAUNKORRA
•MIKROPIGMENTAZIOA
•LASER IODO •DEPILAZIOAK

INTZA
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA

Egurditan irekial
Nagusia 8, Usurbil Tel: 943 36 36 41



Elexpe
ileapaindegia

- Betileen tintaketa eta permanentea
- Estetika • Tatuaiak
- Zutikako eta etzandako solarium-a

Muna Lurra 12, Usurbil • 943 370 462

TXANPU ETA LOZIO BITAMINADUNA
Eskola adinerako berezia

- Iturburuko ur mineralarekin
- Kontserbagarririk gabea
- Belaunaldi berriko formula:
Te arbolez, "Neem"-ez, Kamamila
destilatuz eta Bisabobolez indartua

GOLDWELL
ELUMEN

mista

Zubiaurrenea 4, Usurbil • 943 361 951

Zorrien
aurkako lozio
ORGANIKOA
KUNDA

IMFPB **USURBIL** OLHUI

Oinarrizko Lanbide Heziketa



sukaldaritza
eta jatetxea



ile-apainketa
eta estetika



Usurbilgo Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA UNIBERTSITATE
ETA KERKETA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

AURREMATRIKULA

Epea **Ekainaren 4tik 15era (biak barne).**

Tokia Usurbilgo Udala

Telefonoa 943 36 04 65

Atallu. Zanziura, 3

Posta lhi@usurbil.eus

webgune berria dugu: olh.usurbil.eus

aurrematrikulazioa webgunetik egiteko aukera!

- 15-17 urte bitarteko gazteak
- DBH Graduatua
- Sarrera zuzena erdi-mailako zikloetara
- Lan - munduratzea. Profesionaltasun ziurtagiria, 1